



## **CNMCK sei enpresa zigortu ditu erregai solidoak merkaturatzeko merkaturatzaile aldazteagatik, Lehiaren Euskal Agintaritzak hasitako espediente baten ondoren**

---

Auzitegi Gorenak duela denbora gutxi berretsi du LEA/AVCK espediente honen hasieran egindako ikuskapenaren zuzentasuna

---

BILBON, 2021eko urtarrilaren 12an / **CNMCK 3,5 milioi euroko isunak jarri dizkie erregai solidoak merkaturatzen dituzten sei enpresari. Espediente hori 2016ko martxoaren 15ean hasi zuen LEA/AVCK. Egun horretan, Ikerketa Zuzendariak Euskadin metalgintzako kokea merkaturatzeari buruz informazio erreserbatua jarri zuen abian (102 PVA 03-51/17), Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (LDL) debekatutako balizko jokabideen zantzuak zeudelako.**

Gai horri berari dagokionez, Auzitegi Gorenak duela denbora gutxi berretsi du espediente hau inbuitzeko zantzuak eta frogak lortzeko balio izan zuen LEA/AVCK egindako ikuskapenaren legitimitatea. Auzitegi Gorenako Administrazioarekiko Auzien Aretoaren Hirugarren Sekzioak ezetsi egin du ikertutako enpresetako batek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2019ko martxoaren 12an emandako epaiaren aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa. Epaitegi horrek berak, LEA/AVCK ikerketaren esparruan enpresaren egoitzan egindako ikerketa-aginduaren eta etxer etxeko ikuskapenaren aurkako errekurtsoa ezetsi zuen aurretik.

CNMCK sei enpresak (Toro, FISL, Grafitos, Candel, GME eta Capex CGC) zigortzea erabaki du, hainbat akordioaren bidez merkaturatzaile-informazio sentikorra trukatzegatik, bezeroak elkarren artean banatzegatik eta prezioak ezartzegatik. Lehiarako oso jardunbide kaltegarriak dira, Legeak debekatu egiten ditu, eta herrialde osoan egin ziren 1999 eta 2018 artean. Zigortutako karteak 3,5 milioi euroko isuna jaso dute. Metalurgiako kokea, petrolioko kokea, harrikatza, antrazita, aparrak, bir-erregaiak eta petrolio mikronizatutako kokea merkaturatzean zentratu ziren. CNMCK, gainera, 166.700 euroko isuna jarri die zuzendaritza taldeetako hainbat kideri, arau-hausteetan izandako erantzukizun pertsonalarengatik.

### **Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritzak, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkaturako lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketaren ekonomikoari dagokienez.

Kartelen ikerketa da Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduketaren lehentasunetako bat,



kontsumitzaileentzat eta merkatuen funtzionamendu egokian dituen ondorioen larritasun berezia dela eta. Horretarako, beste batzuen artean “Barkaberatasun Programa” dago. Programa horren bitartez, kartel bateko kide diren enpresak zigorra ordaintzetik salbuetsita geratzen dira edo zigorraren kopurua txikitzeko aukera dute, dagoeneko hasita dagoen ikerketari dagokionez balio erantsi esanguratsua duen informazioa ematen badute.